

## HITZ BITAN

GAZTE PLANA. 118 milioi euro bideratuko dituzte

## Gazteek dituzten arazoei aurre egitea du xede Jaurlaritzaren planak

Europa Press | GASTEIZ

Gazteek dituzten arazoei aurre egitea eta gizarteratzen laguntzea dira, besteak beste, II. Gazte Planaren xedeak, Miren Azkaratek arabera.

Eusko Jaurlaritzak; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiek; eta Gasteiz, Bilbo eta Donostiako udalek 118.241.986 euro bideratuko dituzte II. Gazte Plana 2003. urtean garatzeko.

Gazte Plana 2002 eta 2005 urteen artean garatuko da, eta guztira 130 ekintza baino gehiago biltzen ditu.

Instituzio bakoitzak emango duen diru kopuruaren berri

eman zuen atzo Miren Azkarate Jaurlaritzako Kultura sailburuak, Gasteizen.

Eusko Jaurlaritzako sail desberdinek 50.196.153 euro emango dituzte orotara. Hiru Foru Aldundiek, berriz, 10.801.723 euro eskainiko dizkiote II. Gazte Planari. Azkenik, Gasteiz, Bilbo eta Donostiako udaletxeek 57.244.109 euro emango dituztela azaldu zuen Azkaratek.

### Hezkuntza eta lan mundua ardura nagusiak

118 milioi euro horietatik, 11.990.227 euro gazteak laneratzeko erabiliko dira. Beste 14 milioi, aldiz, hezkuntza eta lan



DAVID AGUILAR / EFE

Miren Azkarate eta Jose Luis Madrazo atzo Gasteizen.

trebakuntzarako izango dira. Azkenik, gazteek etxebizitzak lortzeko 57 milioi baino gehiago bideratuko dira.

Ildo horretan, 20 milioi inguru osasungintza arlorako eta gazteen bazterketa sozialari

aurre egiteko erabiliko direla esan zuen Miren Azkarate Kultura sailburuak.

Gazteentzat, aisialdia eta kultura ekintzak sortzeko, 13 milioi euro inguru erabiliko dira. Eta azkenik, bake kultura

bultzatzeko, 578.915 euro aurreikusitako dira. Datu hauek aztertuz, «gazteentzat lana sortzeko bultzada handia egingo» dela dio Azkaratek. Horrekin batera, handitu egingo da errentako etxebizitzaren eskaintza.

## HEZKUNTZA

### Anjeles Iztueta Kultura sailburua Toscanan egingo diren 'Bizitzan ikasten dena' jardunaldietan izango da

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Anjeles Iztuetak *Bizitzan ikasten dena* jardunaldietan parte hartuko du. Earlallek erakundeak antolatu ditu eta Toscanan egingo dira ostiral eta larunbatean. Iztueta Europako programak aztertzeko herrialdeek egiten duten lanari buruz arituko da irekiera ekitaldian. Toscanako presidente Claudio Martinik, Hezkuntzako kontseilari Paolo Benesperik eta Europako beste hainbat herrialdeetako ordezkariak parte hartuko dute.

### Nafarroako Opening akademiako ikasleek beste eskoletan jarraitu ahal izango dituzte ikasketak

Nafarroako Gobernuak Merkataritza eta Turismo Sailak adierazi duenez, Openingeko ikasleek beste eskola batzuetan ikasketak jarraitu ahal izango dituzte, akademiak eta beste eskolek egindako hitzarmenei esker. Horretaz gain, epaitegietara jotzeko aukera ere badutela gogorarazi die Gobernuak Opening kasuan kaltetutako ikasleei. Izan ere, AUSBANC eta kontsumitzaileen hainbat elkarten salaketak jarri dituzte.

## EUSKARA

### Haur zein helduek Errioxako Euskararen Eguna ospatuko dute bihar Lezan

Arabako Errioxako Euskararen Eguna ospatuko dute bihar Lezan, non eskualde osoko ume zein helduak bilduko diren. Goizeko saioak haurrentzakoak izango dira, eta, besteak beste, Kiki, Koko eta Moko pailazoen ikuskizuna izango da. Gauez, berriz, helduak Gaztetxean elkartu eta upelategi batetik bestera joango dira euskarazko *poteoan*, eta gero afari herrikoia egingo da. Ttiki Ttaka elkarteak antolatutako festa izango da. Ekitaldi honek propio prestatutako abestia du. Gainera, Errioxako ikastolek irratsaio bereziak egingo dituzte goizean jaiari oles egiteko.

## AZOKAK

### Zumarraga eta Urretxuko biharko Santa Lutzia azokan 100.000 pertsona espero dituzte

Bihar Zumarraga-Urretxun egingo den Santa Lutzia azokara 100.000 lagun biltzea espero dute Aitor Gabilondo eta Pello Gonzalez bi herrietako alkateek. Neguko azoketako erreferentzia bihurtu dela diote, eta salneurri dagokionez, ondorengo azoketarako eragin «handia» du. Jon Mikel Murua Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza diputatuak atzo adierazi zuenez, zaldi gazteak izan ohi dira nagusi azokan. 485 erakusmahai inguru jarriko dira.

## EPAIKETA

### Zazpi urteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak, ustez langilea bortxatu zuen jatetxe bateko nagusiarentzat

Langile bat bortxatzeagatik akusatuta zazpi urteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak Hernaniko jatetxe bateko nagusiarentzat. 1999an izan ziren gertaerak: langilea arropa aldatzen ari zela nagusiak bortxatu egin zuen. Horren ondoren, tratamendua jarraitu zuen emakumeak, eta horregatik kartzela zigorraz gain, 30.000 euroko kalteordaina eskatu du fiskalak.

# Bihar

**Yanomamiak: Amazoniako biztanle haien artean eginiko egonaldiaren kronika**

**Goi-mailako alpinistak BBKren mendi astean**

**Himal-Race: mendiko lasterketarik gogorrena**

**Erlo: Izarraizko talaia**

**'Sokan': 2002ko euskal espedizio ofizialen ekitaldia**

...zure independentzia